

ERABAKIA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2019, 2020, 2021 eta 2022ko lan eskaintza publikoen babesean funtzionario izateko ohiko prozesuan, modalitate orokorrean, onartuak eta baztertuak izan direnen behin-behineko zerrenda onartzeko.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak, 2022ko urriaren 20ko Erabakiaren bidez, agindua eman zuen 2019, 2020, 2021 eta 2022ko lan eskaintza publikoko oinarri orokorrak argitaratzeko, bai karrerako funtzioen eskaintzakoak, bai lan kontratudunenak, bai barne promoziokoak (2022ko maiatzaren 24an Gobernu Kontseiluak hartutako Erabakitik eratorriak, erabaki horren bidez administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2022. urteko lan eskaintza onartu eta 2019, 2020 eta 2021. urteetako lan eskaintzak aldatu baitziren).

2022ko abenduaren 22an argitara eman ziren oinarri espezifikoak, ohiko prozesuaren barruan hautaketa prozesuak egin daitezzen UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako karrerako funtzionarioen kolektiboan, sailkapeneko A, B, C, D eta E taldeetan.

Funtzionarioentzako oinarri orokorretako II. eranskinean, laugarren oinarrian, zehaztuta dago eskariak onartzeko bete beharreko baldintzak, eta oinarri horren arabera, baldintzak eskariak aurkeztu aurretik bete behar dira, salbuespena izanik hizkuntza eskakizuna (oinarri orokorretako 8.4 atalean zehaztua).

Oinarri orokorretako 5.2 atalak dio: *Onartuak izateko eta probetan parte hartu ahal izateko, hautagaiek honakoak bete beharko dituzte, parte hartu nahi duten prozesu eta deialdi bakoitzean: 1) Eskariko atal guztiak bete, eta aurkeztu beharreko agiriak erantsi. Adierazitako epearen barruan baldintzak egiaztatzeke agiriak ez aurkezteak hautaketa prozesutik kanpo geratzea ekarriko du, euskarako eskakizuna egiaztatzeke aurreikusitakoaren kasuan izan ezik. 2) Eskaria epe barruan aurkeztu, eta 3) Tasak ordaindu. Era berean, hautagaiek baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete ere; salbuespena da 8.4 oinarrian zehaztutako baldintza. Eskarian honako datu hauek eman beharko ditu hautagaiak: a) Datu pertsonalak, prozesua behar bezala gestiona dadin. b) Ohiko prozesuko txanda librean eskatzaileak zehaztu beharko du zein txandatan nahi duen parte hartu, oinarri espezifikoaren arabera: -txanda librean- desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txandan Deialdi espezifiko bakoitzean txanda bakarraren bidez hartu ahal izango da parte, oinarri hauetako 2.3 ataleko salbuespenarekin. c) Zein eskalatan hartu nahi den parte. d) Ohiko prozesuan, oposizio faseko ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren: euskaraz ala gaztelaniaz. Atal hori bete ezean, probak gaztelaniaz egitea aukeratu dela ulertuko da. e) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izan beharko dute, kasuan kasuko administrazioko organo eskudunak aitortua (foru aldundiko organo eskudunak, IMSERSOK edo pareko organoak), eta aitorpen horrek ondorioak izan behar ditu eskariak aurkezteko epearen azken egunean. Aipatutako baldintza egiaztatzeke, desgaitasuna aitortzen duen erabakiaren fotokopia aurkeztu beharko da eskariari erantsita. Era berean, adimen desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek egoera hori aitortua izan behar dute, eta aitorpen*

horrek ondorioak izan behar ditu eskariak aurkezteko epearen azken egunean. Baldintza hori egiaztatzeko, desgaitasuna aitortzen duen erabakiaren fotokopia aurkeztu beharko da kasuan kasuko administrazio organo eskudunak emana (foru aldundiko organo eskudunak, IMSERSOK edo pareko organoak); eskariari erantsita aurkeztu beharko da.

Bestalde, oinarri orokorretako 5.4 atalean, honakoa dio: *Tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira: a) Enplegu bulegoetan lana bilatzeko izena emanda dauden eta inongo prestaziorik jasotzen ez duten pertsonak. Horretarako, eskariarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: eskariak aurkezteko epearen barruan lan bila dabiltzala egiaztatzeko administrazio eskudunak igorritako ziurtagiria eta prestaziorik jasotzen ez dutela egiaztatzeko Estatu Enplegu Zerbitzuak (SEPE) igorritako ziurtagiria. b) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa daukaten hautagaiak, egoera hori egiaztatzeko agiria eskariari erantsita. c) Familia ugari kide diren hautagaiak, Familia Ugaria Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 12.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Eskaria aurkezten den egunean familia ugari kide izan behar dira eta eskariari erantsi beharko diote familia ugari kide direla egiaztatzeko agiria.*

Bestalde, UPV/EHUk Enplegu Atarian jarritako eskari eredian (ataria izanik eskariak aurkezteko bide nagusia) jasota dago: *Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek ofizioz egiaztatuko ditu eskumena duen administrazioan, hala dagokionean, salbu eta interesdunak aurka egiteko eskubidea baliatuz horren aurka egiten badu: desgaitasun aitortpena, langabezia-egoera eta laguntza ekonomikorik ez jasotzea, familia ugari kide izatea, hezkuntza-titulazioak, euskara-ziurtagiriak eta EAEko administrazio publikoetan emandako zerbitzuak. Aurka egiteak kontsultaren xede diren dokumentuen zerranda aurkezteko betebeharra dakar.*

Alegatutako agirietako batzuk ezin izan dira egiaztatu administrazio publikoetako datuen trakerako plataforman.

Hori guztia kontuan hartuta, eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiaren bidez eskuordetu zaizkidan langileen arloko eskumenak erabiliz (otsailaren 12ko EHAA), honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa. - Hamar eguneko epea irekitzea, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eranskinetan jasotako pertsonak eskarian adierazitako baldintzen egiaztagiria aurkez ditzaten, UPV/EHUk ezinezkoa izan baitu horiek egiaztatzea. Hori guztia UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako karrerako funtzionarioen kolektiboan, sailkapeneko A, B, C, D eta E taldeetan sartzeko prozesuekin lotua.

Bigarrena.- Eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>), prozeduren katalogoan aukeratuta: *"AZPkoen 2022ko LEPa. Dokumentazioa aurkeztea"*. Hori guztia bat etorrita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoarekin, eta UPV/EHUko

idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere).

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Hirugarrena. - Argitaratzea erabaki hau eta bere eranskinak deialdi espezifiko bakoitzaren gunean. Gune horietara UPV/EHUK LEPrako gaituta daukan gune berezitik sar daiteke (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/ohioko-prozesua-funtzionarioak>). Era berean, UPV/EHUko iragarki oholetan ere argitaratuko da.

Errektoreak eskumenak eskuordetuta: Errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia (2021eko otsailaren 12ko EHAA)

MIREN LOREA BILBAO ARTECHE
UPV/EHUKO GERENTEA